



Eskolak eta hainbat zerbitzu bertan behera geratu dira gaurtik Urumea bailaran, Koronabirusa medio

EAEko ikastetxe guztiak itxita egongo dira gaur hasi eta 15 egunez. Nafarroakoak astelehenean itxi beharko dira, gomendioa gaur egitea bada ere. Hernani eta Astigarragan ekitaldi gehiago ere bertan behera utzi dira.

URUMEA OSASUNA

Erakunde publikoek hainbat neurri hartu dituzte COVID-19, Koronabirusaren hedapena geratzeko helburuarekin, prebentzio neurri gisa, eta Urumea bailaran ere izan dute eraginik, gomendio eta neurri horiekin bat egitea erabaki baitute Hernani eta Astigarragako Udalek.

Aurreneko neurrietakoa, eskola publiko guztiak ixtea izan da. Euskal Autonomia Erkidego guztian itxi dira, gaur hasi, eta oraingoz, 15 egunez. Beraz, Astigarragako Herri Eskola, Ereñotzuko Txirrita, eta Hernaniko Elizatxo, Langile, Urumea, Inmakulada, Hernani BHI Institutua eta Lanbide Heziketako zentroak itxita daude.

Nafarroan, atzo goizean oraindik ez zuten erabaki hori hartu, baina Maria Chivite presidenteak arratsaldean emandako prentsurrekoan hezkuntza zentro guztiak ixteko erabakiaren berri eman zuen, «gutxienez, bi astez». Astelehenean itxi beharko dira, gaurtik ixtea gomendatu bada ere.

Zerbitzu gehiago ere itxita, Hernanin

«Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailaren gomendioak jarraituta», Hernaniko Udalak hainbat udal zerbitzu ere bertan behera uzteko erabakia hartu du. Ho-



Ereñotzu, Hernani, Astigarraga eta Goizuetan eskola guztiak itxi dira.

rrela, gaurtik aurrera, hainbat eraikin itxi eta bertan egiten diren ekintza guztiak bertan behera geratu dira. «Momentuz, ezin da zehaztu noiz irekiko diren», azaldu du Udalak.

Horrela, itxita daude kiroldegia, Biteri kultur etxea eta udal liburutegia, musika eskola, udal euskaltegia, Goiz Eguzki jubilatuaren etxea, Plaza Feminista, Gaztelekua eta Gabriel Zelaia ikasgela zerbitzua. Azken eraikin honi dagokionez, hala ere, irekita egongo dira bertan kokatuta dauden enplegu orientazio zerbitzua eta Iturrola, baina, murrizketekin, «jende pilaketak saihestu nahian, bulegora sartuko dira, bakarrik, artatuak izango diren pertsonak. Besteek kanpoan edo korridorean geratu beharko dute txandaren zain». Berdin, udaletxean, udaltzaingoa eta udaletxeko HHZ, Herritarren Harrera Zerbitzuan.

Era beran, Udalak gomendatu du «herriko elkarteetako utzitako eraikin eta egoitzetan jende pilaketak saihesteko».

Kultur eta kirol ekitaldirik ez
Honek guztiak eragina dauka hainbat ekitalditan. Horrela, Her-

Murrizketak Kronikan, Koronabirusagatik

Herritarrei bulegora ez gerturatzeko eskatu nahi die Kronikak. Harremanetarako, emaila eta telefonoak erabili ahal izango dira.

KRONIKA OSASUNA

Erakunde publikoek prebentziorako egin duten deialdiarekin bat egitea erabaki du Kronikako lan-taldeak ere, eta hori horrela, hainbat neurri hartu ditu.

Hasteko, lan egiteko eran aldaketak izango dira. Bulegoan ahalik eta jende gutxien pilatze aldera, langile guztiak txanda berezietan egingo dute lan, eta lan asko etxetik egingo dituzte. Dena den, bulegoan beti egongo dira langile bat edo bi, oraingoz, beharrezkoak di-

ren egitekoak eta etxetik egin ezin daitezkeenak egiteko.

Herritarrei eskainiko zaien arretari dagokionez, berdin-berdin jasoko dira eskaera eta berri guztiak, baina bulegora ez etortzeko eskatzen zaie. Harremanetan jartzeko, kronika@kronika.eus helbide elektronikoa, edo 943 33 08 99 eta 688 66 07 14 telefonoak erabili daitezke, beti bezala.

Paperezko Kronikari dagokionez, baliteke datozen egunetan edizioak murriztea, ekitaldi asko bertan behera geratu direlako.

nanin, bertan behera geratu dira gaurko programatuta zeuden zine foruma eta asteburuetak Biteriko zine saioak, Gaztelekuan

martxan jartzekoa zen *BeatEroak* egitasmoa, Langile ikastolako 50garren urteurrenaren harira gaur egitekoak ziren diskofesta

eta bideokliparen aurkezpena eta biharko jaialdi erraldoia, bizikidetza aldeko herritar ekimenak hilaren 17rako antolatutako *Bizimiñak* antzerkia, biharko San Joan Konpartsak antolatutako erronomia saioa... eta oro har, aipatutako eraikinetan programatutako ekitaldi guztiak. Astigarragan ere, oraingoz, astebururako programatutako kultur ekitaldiak bertan behera geratu dira: Irradaka dantza ekitaldia edota haur antzerkia, adibidez.

Ereñotzuko Auzo Udalak ere oharra kaleratu du, «Auzo Udalak zuzenean antolatuta edo berak antolatu ez arren auzo udaleko eraikin ezberdinetan antolatzen diren jarduera ezberdinak bertan behera uzteko» erabakiaren berri emateko. Beraz, atzoko auzo batzarra ez zen egin, eta ez dira emango ludoteka, gazte txokoa, yoga eta bestelako ikastaroak, Berriketan saioak edota haur zaintza zerbitzuak.

Kirol ekitaldiei dagokien ere, bertan behera geratu dira eskola kirola eta federatutako kirolari lotutako ekitaldi guztiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak «eskolaren esparruan hartutako prebentzio neurriekin koherenteak» izateko dei egin duela-eta. Horrela, Hernani eta Astigarragako kirolariek ez dute izango partidurik palan, futboleak, eskubaloia... Era berean, JOCC tixrrindulari taldeak antolatuta asteburuan Hernanin jokatzekoa zen Hernani Saria proba ere bertan behera geratu da, eta beraz, ez da errepidean mozketarik izango.

Ttapa Ttapa eta pentsiodunak ere, geldi

Era berean, «adineko pertsonen artean COVID-19aren zabalkundea murrizteko», bertan behera utzi du Hernaniko Udalak asteazkenetako Ttapa Ttapa egitasmoa.

Pentsiodunek ere, asteleheneroko plazako elkarretaratzea bertan behera uztea erabaki dute, «prebentziorako». **K**



Berrikuntza:
ostiral eguerdian irekita
enkarguz

Kalitate handiko 4.600 sagarrondo
Tolare sagardotegia
Astazkenetik larunbatera gauzez
Ostiral, larunbat eta igandean eguerdian ere bai
Berogailua

EULA

LATEGI AUZOA, 19. URNIETA
Hernaniko Portu auzotik 5 minututara

943 55 27 44
www.eulasagardotegia.com



Allianz
ASEGURUAK

- biitza -
- latripuk -
- ibilgailuak -
- etxeak -
- komertzioak -
- enpresak -
- ardura zibila -
- finantz aseguruak -
- inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71



MARI FE
ARRANDEGIA

NAGUSIA 36 943 550 489

EGURALDIA

GAUR

Freskatu egingo du pixka bat, ipar haizearen eraginez, eta eguna lainotuta eta euri pixka batekin hasiko da. Baina atertzera egingo du.
Min.8° / Max.13°

BIHAR

Lainoekin hasiko da eguna, baina, pixkanaka, eguzkia nagusituko da. Temperatura minimoak jaitsi egingo dira, baina maximoak, igo.
Min.5° / Max.15°

(euskaletx)

ARGITARATZAILEA

DOBERA

EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Argitarragako Udala

Erretxakoa

Azko Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta)

UDALTZAINGOA: 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga)

DYA: 943 464622

AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ANBULATORIOA: 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

Egunez: **Castilla** Urbietak, 7 (Hernani) **943 552941** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI

GOIZUETA

ASTIGARRAGA

DOBERA

ERRETAKOIA

ARANOIA

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

HERNANI

GOIZUETA

ASTIGARRAGA

DOBERA

ERRETAKOIA

ARANOIA

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Amamaren ume kontuak ipuin berrian, Axpik eta Agirrek

Alzheimerraz modu xamurrean hitz egiten du Alaine Agirre Garmendia idazlearen eta Ainara Azpiazu, 'Axi' ilustratzaile hernaniarraren 'Nire amama umea da, ni bezala' ipuinak.

HERNANI LITERATURA

Nire amama umea da, ni bezala izeneko ipuina kaleratu berri dute Alaine Agirre Garmendia idazleak eta Ainara Azpiazu, Axi ilustratzaile hernaniarrak. Bihar zuten aurkeztekoa, Tabakalerako patioan dagoen Tobakcodays liburudendan, Danele Sarriugarterekin, baina bertan behera geratu da ekitaldia, Koronabirusaren hedapena gel-

diarazteko prebentzio neurriak medio.

Dena den, liburua dagoeneko irakurgai dagoela jakinarazi dute, «birusik ez» daukala, eta «datozen etxe-egun lezeotarako asperduraren kontrako botika efikaza» dela. Liburudendatan aurkitu daiteke.

Korearrez ere bai, Alzheimerra hizpide

Dagoeneko estatuko lau hizkun-

tzatan argitaratuta du ipuina La Topera argitaletxeak, eta korearrez ere laster kaleratuko da.

Bertan, amona eta bere bilobaren arteko istorio hunkigarria kontatzen da, Alzheimerraz «modu sentikor, samur eta dibertigarrian» hitz egiteko. «Mundu guztiak dio nire amama oso zaharra dela, baina bai berak eta bai nik badakigu, barru-barruan, ume bat daukala ezkutatuta», kontatzen du.

Eskerrak publikoari

Biharko aurkezpena bertan behera geratu bada ere, Axpik eta Alaine «bertaratzeko asmoa zuten guztiei eskerrak



Amama Filomena da liburuko protagonista.

eman» nahi izan dizkiete.

«Pena handiarekin» hartu dute erabakia, baina azpima-

rratu dute Amama Filomenaren abenturak jarraitzeko aukera badagoela, dagoeneko. **K**



Arkupetan eman zuen kontzertua Leokadisti txistulari taldeak.

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Doako hezkuntzaren alde M26 IKASLE GREBA!

Ikastea eta formatzea eskubide bat baino gehiago betebeharrak bat da gazteontzat. Derrigorrezko hezkuntza formazioa amaitu ondoren ere ikasten jarraitzea behartuak gaude. Aitzitik, lanpostuetara sarbidea eskuratzeko geroz eta titulu gehiago ateratzera behartuak gaude. Aurreko belaunaldiek baino ikasketa gehiago izanik ere, lan baldintzak kaskartu egin dira eta soldadak gero eta txikiagoak dira.

Aurrez esandakoa gutxi baltz, ikasketen kostua geroz eta handiagoa da. Garraioaren prezioa eta materialen kostuak urtero garestitzen ari diren arren, ikasketak ordaindu ahal izateko laguntza ekonomikoak geroz eta murriztagoak dira gobernu,

instituzio eta enpresa pribatuena aldetik. Ikasketak ordaintzeko zailtasunak biderkatzen zaizkigu anai arrebaren bat unibertsitateko ikaslea izanez gero, gutariko asko datozen urteetan izango garen moduan.

Horren aurrean, Ikasle Abertzaleok uste dugu antolatzea eta mobilizatzea ezinbesteko egin beharra dela ikasleontzat. Zentzu horretan ulertzen dugu martxoaren 26ko ikasle greba. Ikasketa prozesu osoak doakoa izan behar duela aldarrikatzeko greba deialdia izango da. Gainera, unibertsitateko ikasleen aldarrikapenak indartu eta bereziki unibertsitateko tasak merketzera bidean eta beken hobekuntzarako inflexioa puntua izango da.

Gure ikastetxe eta hezkuntza zentroetan ikasketak doakoak izan behar direla sinesten dugula egingo dugu greba. Halaber, unibertsitateko kideek eskertuko dute martxoaren 26an greba egin eta hiriburuetako manifestazioan ikusten gaituztenean. Guk ere eskertuko dugu datozen urteetan unibertsitateko ikasleak garenean. Norabide horretan antolatu eta borrokatuz lortuko dugu hezkuntza langile klasearen mesedetara antolatzea. Beraz kalean ikusiko dugu elkar.

Ikasleok martxoaren 26an greba! Gora ikasleonen borroka!

June Aranburu Bitorika, Ikasle Abertzaleak-eko kidea

Enkartelada, bigarren ostiralarekin

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Hileko bigarren ostirala izanik, enkartelada egingo dute gaur Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek, 20:00etan Plazatik aterata, «preso dauden oinarritzko eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzeko». Era berean, dei oinarritutako guztiei, parte hartzeko. «Bada garaia mendekuan oinarritutako espetxe politika honekin bukatzeko», adierazi dute.

Aste Santurako izena, gaur arte

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Ludoteka irekiko du Xaguxar aisialdi taldeak Aste Santuan, apirilaren 6tik 8ra eta 14tik 17ra, eta gaur da izena emateko azken eguna, kultur etxean. Prezioa 40 eurokoa izango da. Zaintza zerbitzua ere emango da 08:30etatik 10:00etara, 20 eurotan, taldea osatzen bada.

Ur Miako eskolartekoa, atzeratua

EREÑOTZU BERTSOLARITZA

Eskolarteko Bertsolari Txapelketako hirugarren kanporaketa Ereñotzun jokatzekoa zen gaur, 22:00etan hasita, Ur Mian. Baina Koronabirusaren hedapena murrizteko hartu diren neurriekin bat eginda, Bertsotale elkarteak oraingoz bertan behera utzi du ekitaldia. Data berria zehaztean jakinaraziko du.

Pagoetara irteerarik ez, igandean

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Gaztetxoekin Pagoetara irteera egiteko asmoa zuen Mendiriz Mendi elkarteak iganderako, baina bertan behera utzi du, «osasun-krisiaren ondorioz, administrazioaren gomendioa jarraituz».

Bardoetako finalaurrekoa, atzeratua

GOIZUETA BERTSOLARITZA

Bihar Goizuetan egitekoa zen Bardoetako bertso txapelketako finalaurrekoetako bat, baina Nafarroako Bertsotale Elkarteak jakinarazi du atzeratu egingo dela, Jaunsaratsen egitekoa zen saioa bezala, Koronabirusaren harira hartzen ari diren prebentzio neurriekin bat eginez. Data berria zehaztean jakinaraziko du.

IRAGARKI MERKEAK

Haur zaintzailea. Ikastetxeen 15 eguneko egoera ikusita, unibertsitateko ikaslea den 21 urteko neska hernaniarra ume zaintzaile gisa lan egiteko prest. **Deitu: 680 363 705**

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**